

**MARÍA MARTINÓN**
CENIEH Centro Nacional de Investigación sobre la Evolución Humana

María Martinón Torres mediku eta paleoantropologo espainiarra Atapuercako ikerketa taldeko kidea da, 1998. urteaz geroztik, eta Giza Eboluzioari buruzko Ikerketa Zentro Nazionalaren (CENIEH) zuzendaria, 2017. urteaz geroztik. Hominidoen hortzeriari buruzko nazioarteko hainbat proiektutan parte hartu du, eta Europako hominido zaharrenaren hortzak ikertu ditu.

Haren ikerlanetan, hominidoen paleobiologia, inplikazio taxonomikoak eta filogenetikoak dituen hortz aparatuaren eboluzioa, eboluzio egoerak eta paleopatologia aztertu ditu, gehienbat.

Atapuercan eta Dmanisi-n (Georgia), non Afrikatik kanpoko giza aztarna zaharrenak, 1,8 milioi urtekoak, aurkitu zituzten, aldi berean egindako lanen ondorio gisa, lehen europarraren jatorria Asia izan zela iradoki dute, eta ez Afrika. Txinan egin duen lanak Afrikatik kanpo gure espezieak izandako lehen hedapenaren kronologiari buruzko teoriak zalantzan jarri ditu.

María Martinón-Torres es una médica y paleoantropóloga española miembro del Equipo de Investigación de Atapuerca desde 1998 y directora del Centro Nacional de Investigación sobre la Evolución Humana (CENIEH) desde 2017. Ha participado en varios proyectos internacionales sobre la dentición en homínidos, incluyendo las piezas dentales del homínido más antiguo de Europa.

Sus investigaciones se centran en el estudio de la paleobiología de los homínidos, evolución del aparato dental con implicaciones taxonómicas y filogenéticas, escenarios evolutivos y paleopatología.

El trabajo simultáneo desarrollado en Atapuerca y Dmanisi (Georgia), donde se hallaron los restos humanos más antiguos de fuera de África, de hace 1,8 millones de años, ha llevado a sugerir que el origen de los primeros europeos es asiático en lugar de africano. Su trabajo en China ha puesto en duda las teorías relativas a la cronología de la primera expansión de nuestra especie fuera de África.

**Ibilbidea eta aintzatespenak**

Medikuntza eta Kirurgia ikasi zuen Santiago de Compostelako Unibertsitatean, Lizentziaturako Sari Berezia eskuratuta eta han lortu zuen Galiziako Medikuntza eta Kirurgia Akademiaren saria ere. Unibertsitate berean eskuratu zuen doktoregoa, Medikuntzako eta Kirurgiako Doktorego Sari Berezia lortuta. Hominido fosilen hortzeriaren analisiari buruzko tesia egin zuen, eta batera zuzendu zuten Jose Maria Bermudez de Castrok, Atapuercako mendilerroko indusketen zuzendarikideak, eta Ángel Carracedok, Santiago de Compostelako Auzitegi Medikuntzako Institutuaren zuzendariak.

Antropologia Forentsean espezializatu zen, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean, eta Giza Eboluzioan, Bristolgo Unibertsitatean. 1998an, Atapuercako ikertaldean sartu zen, eta 2007tik 2015era hominidoen hortzen antropologiari buruzko ikertaldearen arduraduna izan zen, Giza Eboluzioari buruzko Ikerketa Zentro Nazionalean (CENIEH). 2015. urteaz geroztik, Londresko Univesity Collegeren (UCL) Antropologia saileko irakaslea da. 2017ko abenduaren 11n, Giza Eboluzioari buruzko Ikerketa Zentroaren (CENIEH) zuzendari kargua hartu zuen, eta 2018an, UCLko ohorezko irakasle izendatu zuten. Giza eboluzioari buruzko eskola magistralak eta uda ikastaroak ematen ditu, eta masterreko eta doktoregoko ikasleen lanak gainbegiratzen ditu Espainian eta atzerrian.

Hamar liburu edo liburuen kapitulu baino gehiago argitaratu ditu, giza eboluzioaren arloan, eta 90 artikulutik gora, nazioarteko aldizkari zientifikoetan. Thomson Reuters-

**Trayectoria y reconocimientos**

Estudió Medicina y Cirugía en la Universidad de Santiago de Compostela, donde obtuvo el Premio Extraordinario de Licenciatura y el Premio de la Academia gallega de medicina y cirugía y se doctoró en la misma universidad con el Premio Extraordinario de Doctorado en Medicina y Cirugía. Su tesis doctoral versó sobre el análisis de la dentición de los homínidos fósiles, codirigida por José María Bermúdez de Castro, codirector de los yacimientos de la sierra de Atapuerca, y Ángel Carracedo, director del Instituto de Medicina Legal de Santiago de Compostela.

Se especializó en Antropología Forense por la Universidad Complutense de Madrid y en Evolución Humana por la Universidad de Brístol. En 1998 entró a formar parte del equipo de investigación de Atapuerca y entre 2007 y 2015 fue responsable de la investigación del Grupo de Antropología Dental en Homínidos en el Centro Nacional de Investigación sobre la Evolución Humana (CENIEH). Desde 2015 es profesora en el Departamento de Antropología del University College de Londres (UCL). El 11 de diciembre de 2017 tomó posesión como directora del Centro Nacional de Investigación sobre la Evolución Humana (CENIEH) y en 2018 fue nombrada Catedrática Honoraria de la UCL. Imparte clases magistrales y cursos de verano sobre evolución humana y supervisa a alumnos de máster y de doctorado de España y del extranjero.

Ha publicado más de diez libros o capítulos de libros en el ámbito de la evolución humana y más de 90 artículos en revistas científicas internacionales. Su trabajo fue incluido en el Top 1% de los autores más

ek bere arloan gehien aipatutako egileen Top % 1ean sartu zen haren lana. 2019. urteaz geroztik, Zientziarako Gadea Fundazioaren Aholku Batzorde Zientifikoko kide gonbidatua da. Antropologiako Errege Institutuak 2019ko Rivers Memorial domina ematea erabaki du, antropologiaren arloan egindako ekarpen bikainaren aitortza modura.

citados en su campo por Thomson Reuters. Desde 2019 es miembro invitado del Comité Consultivo Científico de la Fundación Gadea por la Ciencia. El Real Instituto de Antropología de Reino Unido e Irlanda ha decidido concederle la Medalla Rivers Memorial 2019 en reconocimiento a su excelente aportación al ámbito de la antropología.

## Erreferentzia interesgarriak | Referencias de interés

CENIEH Centro Nacional de Investigación sobre la Evolución Humana

Elkarrizketa | Entrevista La Vanguardia 06/02/2022

Elkarrizketa |Entrevista BBVA OpenMind (YouTube, 1h) 04/11/2020

Elkarrizketa | Entrevista Jot Down 01/02/2020

Elkarrizketa | Entrevista El País (YouTube 3’) 22/07/2019

Artikuloa |Artículo BBVA OpenMind

@MMartinonT